


Bizkaitarrei Bizkaieraz

**ZER**

379n. zenbakia • 2012 otsaila



[www.euskerazaleak.biz](http://www.euskerazaleak.biz)  
[www.euskerazaintza.org](http://www.euskerazaintza.org)

# Atlantisen azken egazkada



Zientzia eta Jainkoa:  
Zientzialarien testigantzak



Euskalerria  
edo Euskadi

# Euskalerrian euskeraz EUSKERA ZALEAK

## 2011-2012 IKASTURTEA

### BIZKAIERAZ 44. IKASTAROA IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: astelen eta eguasten  
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz, arratsalde eta gabetan

Ordaña: 140 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2  
urrutizkiña 94 423 53 22  
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 10an

### 44. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES Y CONVERSACIÓN

Días: lunes y miércoles  
o martes y jueves

Horas: Mañana, tarde y noche

Curso completo: 140 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2  
Teléfono 94 423 53 22  
Bilbao 48001

Comienzo: 10 de octubre

## ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

**EUSKERA ZALEAK**  
**BILBAO BIZKAIA KUTXA**  
**2095 0000 74 2000089615**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!**  
**Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 25 €.**  
**Ez dozu ezer be idatzi bear.**  
**Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.**  
**Eskerrik asko!**

## Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

[www.euskerazaleak.biz](http://www.euskerazaleak.biz)

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia

Kultura Saila  
Departamento de Cultura

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

Flash Composition, S.L. - Bilbao

[www.flashcomposition.com](http://www.flashcomposition.com)

# Atlantisen azken egazkada

**E**gunguentia aurretik arazo barik lurreratu zan Floridan Atlantis espazio-ontzia egun onetan lau astronauta ebazala, estatu batuar espazio-ontzien iru amarkadetako egitasmoa burutuz, gertakizun garrantzitsu eta tragedia batzuk tartean.

Atlantis-en gurpillak Cabo Cañaveral inguruko Espaziorako Kennedy Zentroaren pistara elduzterakoan, bertoko goizeko 5,37ak ziran (09H57 GMT), 42 minutu eguzkia urten aurretik, gau argi batetan, lurrari bira ematen eutsoenetik 65 minutuko jaitsieran.

“Houston, eginkizuna burutu da, mundu osoari 30 urtetan zerbitzatu ondoren estatubatuar espazio-ontzi onek istorian lekua irabazi dau”, iñoan egaldiko komandante Chris Ferguson-ek, lurreratze lanak amaitu ostean.

“Atlantis etxeratu da, bidaiia amaitu. Dastatzea me-rezi dauen une istorikoa da au”, iñoan Houstongo aire kontroleko bozemaileak.

“Estatu Batuak ez dabe espazioa arakatzeari itziko”, iñoan Ferguson-ek. Eta geitu: “Jainkoak bedeinka dagizala Estatu Batuak.



*Atlantis gorantz.*



*Chris Ferguson*

“Ongi etorriak eta zorionak egindakoagaitik, Atlantis” esan eben kontrol gunetik.

“Zirrara andia da gaur gure artean, baña bada zer-bait ez bairik bagakoa, Estatu Batuek ez dabe espazioaren arakatzea alboratuko” nabarmendu eban egaldiko komandanteak, espazio-ontzi onen irugarren eta azkena zan egaldia amaieran.

“Espazio-ontzia azkenekoz lurreratu da, bidaia amaituz”, ondorioztatu eban kontroladoreak

Espazio-ontziari eskañitako azken agurra gisa, Atlantis-ek Nazioarteko Espazio Zentroa (ISS, ingeleraz) lurreratu baño apur bat bat lenago Kennedy Zentroaren gañetik lau minutuz inguru igaro zan, ikusteko moduan.

Asteazkena geroztik Atlantisen eskifaia eta Nasa espazio agentzia estatubatuarraren langileria artean emozioa nabaria da, espazio-ontzien garaia azkenekotan dagolako.

“Latza izango da, eta gutariko batzuentzat txundigarria azken 30 urteotan bizitza espazio-ontzien programari eman dautsogulako”, esan eutson Ferguson-ek CBS News telebista kateari.

“Asieratik danai azaldu dautsiet gertaera onen garrantzia espazio-ontziaren gupillak pista artzean nabarituko dogula”, geitu eban.

Atlantis-ek lurreratu bezain laster “malko tristeak isuritzen iataz, aldi berean pozezkoak, prest gagoz-eta urrengo urtetik aurrera enpresa pribatuekatz batera Espazioko Estazio ISS-era materialak bialtzeko”, aurreratu eban eguaztenean Nasako nagusi Charles Bolden-ek, espazio-ontzien komandante oiak

Nai eben guztiei pistan egotera gonbidatu ebazan Ferguson-ek eta zirrarez zera esan eutsien “espazio-ontziaren iritsiera ikusteko une oneik memo-



*Atlantis lurreratzen.*



rian gordeta eukiteko dira, ez dabelako beste inoiz orrelanagorik ikusteko aukerarik izango”.

Iñoiz egindako egalaldietarako espazio-ontzi makina andiena ark orbitan jarri eban espazioan Hubble lenengo teleskopioa, astronomia irauliz eta 1998-2010 urte artean Nazioarteko Espazio Estazioa eraiki ebanean.



Boeing 747a bezain leku dauena, orbitako lekurik urrinen lortuz 100.000 miloi dolar baliokoa dan ISS-a espaziorako nazioarteko lankidetzaren ikur dan au antzekorik gabeko laborategia da, eguzki sistema arakatzeko alabearrezkoa.

Espazio-ontziaren erabilpena aurreikusitakoa baiño askoz garestiago suertatu da. Asiera batean espaziora jaurtitze bakoitzeko 775 milloiko dirukostea antzeman iakon, baiña denboran zear bi porrot izan ditu.



1986ko urtarrilaren 28an Challenger-ek eztanda egin eban espaziora jaurtitzera, 2003ko otsailaren 1ean Columbia deseginda geratu zan atmosferatik itzultzerakoan. Programa onetan guztira 14 astronautek bizia galdu eben espaziorako.

Bestetan baiño komunikabide geiago urrratu dira espazio-ontzi onen azken lurreratzerara. Alan da be, andiagoa izan zan joandako uztaillaren 8an Atlantis-en jaurtiketara bildutakoak, Kennedy Espazio Zentroan 2.000 kazetari baiño geiago bildu zan.

Atlantis espazio-ontziak bere azken eta ogeita amai-  
rugarren ibileran 8,5 milloi kilometro egin ebazan,  
Nazioarteko Espazio Zentroari zortzi egunez atxikia  
egonez. Denbora osoan 202,67 milloi kilometro egin  
ditu.

Denbora guztian, espazio-ontzi au 307 egun egon da  
espazioan eta Lurrari 4.848 aldiz egin dio bira.

Bost espazio-ontzi oneik –euretatik istripu bietan  
desegindako (Challenger, 1986 urtean, eta Columbia,  
2003an)– guztira 872,9 milloi kilometro egiñak dira  
eta Lurrari 21.000 bira baino geiago.


Bost espazio-ontziak espazioan 1.333 egun egin dabez.

Azkena dan 135. egaldi onen ostean, Estatu Batuak  
ISS-ra astronautak bidaltzeko baliabide barik geratzen  
dira, orretarako errusiar ontzien eginetara geratuz gu-  
txienez 2015 urtea arte. Denbora guzti ori bearko date  
espazio-ontzi barriak eraikitzeko Nasa-rekin batera  
konpainia pribatuek.

**Munetxek**




*Nasako jakitunak*



*Soyuz*

# Zientzia eta Jainkoa: Zientzialarien testigantzak

Jainkoa siñestunen abiapuntuan eta zientzialarien amaieran dago.  
Nafarroako Unibertsitate Kapilautzako albistek  
Patxi Otamendik euskeratua





## A. EINSTEIN

«Izadiaren ikerlari sakon oro sentimendu erlijioso batez unkitua geratzen da, ulerteziña jakolako antzemoten dituen arremon bereziak lenbizikoz berak aurkituak izatea. Unibertso ulerteziñean Goi Adimen Mugagabea aurkitzen da».

## CH. DARWIN

«Ez dot sekulan Jainkoa danik ukatu. Uste dot Eboluziñoaren teoria eta Jainkoagan siñistea bateragarri dirala. Jainkoa badanaren argudio nagusia neurritz kanpoko unibertsoa frogaeziña eta ulerteziña izatean datza, baita gizakia bezin ustekabekoa izatea».




## N. COPERNICO

«Oreka lortuenak jainkozko jakinduriatik urbil izateak nor ez dau gogo gorrenaz eztenkatua uzten? Nork ez dau guzti orren Arkitektoa goretsiko?».

## T. A. EDISON

«Nire begirune eta miresmen aundiena ingeniari guztiei, eta danen artean aundiena dan Jainkoari».



## HATHAWAY, (Garun elektronikoaren asmatzaillea)

«Fisika modernoak irakatsi daust natura ez dala bere kabuz antolatu. Unibertsoak sekulako antolaketa dau. Orregaitik bearrezko jako Leen Egillea, andia, energiaren aldaketaz bigarren legera lotu bakoa, eta orretaz naturaz gaindikoa».



## W. VON BRAUN

«Gizakia eta zientzia egunez egun ikertzen ari diran Unibertso aundiaren sortzailea Jainkoa da eta danen gaiñetik dago».

---



## A. M. AMPERE

«Zein andia dan Jainkoa, eta zein txikia gure zientzia!».

---



## I. NEWTON

«Dakiguna tanta bat baiño ez da, ezagutzen ez doguna itsaso erraldoia. Unibertsoaren oreka miresgarri au ezin daiteke Izaki jakintsu eta alguztadunaren adimenetik baiño sortua izan».

---



## K. F. GAUSS

«Azken ordua eltzerakoan, alaitasun aundia bezain adierazeziña suertatuko jaku len soillik irudikatu dogun Ori aurkitzea».

---




## G. MARCONI

«Arro diñot: siñistuna naz. Otoitzaren almenean siñisten dot eta katolikoa izateaz gain zientzialari legez be siñisten dot».

---





## C. LINNEO

«Bertatik igarotzen ikusi dot Jainkoa: betiereko, mugaezin, jakintsu eta alguztiduna, eta bera gurtu naian belaunikatu naz».



## E. SCHRÖDINGER, (Fisika Nobel sariduna, Uin bidezko Mekanikaren sortzailea)

«Mekanika kuantikoaren neurrian maisulanik bikaiñena Jainkoak egingakoa da».



## K. L. SCHLEICH, (Zirujau ospetsua, anestesia murriztuaren asmatzailea)

«Mikroskopia eta natura begiratzuz egin nintzan sinistedun, eta al dodan orotan zientzia eta erlijioa arteko artuemonaren erabat adiskidegarria izan dadin saiatuko naz».



## J. KEPLER

«Jainkoa andia dan lez, andia bere almen eta jakinduria. Zeru-lurrak egin goratzarre. Ene Jaun eta Sortzailea! Zure sorkarien anditasuna gizakiei jakinaraziko deutset, nire adimen mugatuak ulertarazi deustan neurrian».



## SIR FRED HOYLE, (Astronomoa eta matematikari bikaina)

«Galaxien unibertsoa zabaltzen ari da, eten barik sortzen dan materia barria unibertsoaren trinkotasunean iraunarazteko. Orrek Sortzaile bat eskatzen dau».



**A. S. EDDINGTON**, (Astronomo eta matematikari ingelesa)

«Ateismoaren eragilleen artean ez egoan naturalistarik, baizik erdipur-diko filosofoak baizik. Unibertsorearen sorrera ulertzea, naturaz gaindikoa dala aitortu ezean, gaindieziñeko zailtasuna da»



**J. BARON VON LIEBIG**, (Kimikoa eta fisiologo alemana)

«Sortzaillearen anditasuna eta erabateko jakinduria soillik ulergarri egiten jako naturaren liburu bikañetik ikasten dauenari».



**E. WHITTAKER**, (Ikerlaria, Edinburgoko Unibertsitatean katedraduna)

«Unibertsorearen sorrera sakon ikertzean, katolizismora joatea beste bide-rik ez dago».



**VOLTA (1745-1827)**, (Argindarraren oiñarrizko azalpenak agertu zituen)

«Apostoluen eta erromatar siñismen santua aitortzen dot. Jainkoari nire esker beroa siñismena sustatu deustalako, orren babesean bizi eta il nai dot».



**CAUCHY (1789-1857)**, (Matematikari ospetsua)

«Kristaua naz, au da, Kristoren jainko izaeran siñistuna, iraganeko astro-nomo eta matematikari ospetsu guztiak legez».



**SECCHI (1803-1895)**, (Kimikari ospetsua)

«Zerua begietsiz Jainkoa topatzea bide laburra da».




**ROBERT MAYER (1814-1878)**, (Zientzialari naturalista, Indar Iraunkorraren aurkitzailea)

«Nire bizitzaren amaiera onetan nire baitak auxe diño: benetako zientzia eta filosofia funtsean erlijioaren atari besterik ez dira».



**CHARLES TOWNES (1915- )**, (Fisikako Nobel saria Laserraren erabilera aurkitzeagatik)

«Erlijioso naizenez nigandik aragokoa dan Sortzaile baten izatea eta parteartzea sentitzen dot, naiz eta nigandik beti urbil ego Unibertsoaren oreka adimenez egiña dago».



**PLANCK (1858-1947)**, (Fisika kuantikoaren aitzindari eta 1918. urteko Nobel sariduna)

«Ezer oztopatu ez, eta ezagueraren bulkadak zera eskatzen deusku: Unibertsoaren oreka eta erlijioaren Jainkoa elkarrekin lotzea. Jainkoa sinisturenaren abiatzean eta fisikoaren elmugara eltzean dago».



**ALLAN SANDAGE (1926- )**, (Astronomo profesionala, urruneko izarrak begizatuz unibertsoaren zabaltze abiadura kalkulatu eban, baita bere adina be)

“Txikitan atea nintzan. Zientzia berak eroan ninduen mundua uste baiño korapilotsuago dala antzematera. Izatearen misterioa soillik Naturaz gaindi zerbait badela bitartez uler daiket”.



# Euskalerrria edo Euskadi

## “Berezko sorterri edo aberria da” (XII)

### EUSKALDUNEN BIZITZAZKO OSAGARRITASUNA<sup>(1)</sup>.

Euskalerrriaren arbasoak, Paleolitiko Neolitikorarte eta aldi orreitan, lortu eben Askatasunezko Jendekuntz Demokratikoa ez zan txantxetakoa izan.

Beragaz, bakezko bizi era bat sortuz gain, euren arteko kidekotasun andi bat lortu eben, irauntasunezko denboraldi aietan, zor eskubidearen ardurazko eginkizunen egilletasunak oituratzen, kidetasunaren emaitzak emon eutsezelako agerpide guztietan.

Eta gure bizitzaren bearrezko ekintzaren emaitzak agerpide orreik emoten ba dabez, bakezko ondorio orreik esaten dabe, Jainkoak Berezitutako Lege bidetik goazela bakez eta zentzun andiko osagarritasunaren ulermenean.

Sinismeneko jakintzaren mailla andi orreitara eldu ziran gure arbaso maitagarriak, Euskalerrriak bere edesti guztian ainbeste erasoari aurka egin ta gero, gaurko egunean guk daukagun sinismenarekin agertu gindezan.

Eta ori ez da lortzen, siniste orren milla urte askotako jabetasuna euki ezik.

A ta guzti baiña, menperatzailletasunezko kaizar arrano andi orreik, euren etenbako lan bitartez, euskal gazteen sinismenetan euren maltzurrezko zalantzak sartzen dabez.

Daukien menpetasunezko andikeritik, egi lez eta lillurazko itxuran botaten dabezan guzurak gure gazteen oarkuntzan ezartzen diralako, areik eta maltzurrezko arraoi orreik euren itaunketa eta barneko azterkuntzagaz garbitu arte.

Karlista ta Frankoren guda ostetik, maltzur, guzur ta larderizko denborak izan dira, gazteak, euren norkerizko ulermenean ezarri zitezen, eta euren asarre bidez, sarritan entzun dodaz esaten, **“ezer egin dabe gure aurrekoak ?”**.

Nik, badakit gure gazteen berba orreik, daukien ezinkorrezko larritasun aldetik urtetan dautsezela, arrazoizko egiagaz egiten dan ainbeste maltzur nastezko bidetik, gagozan jakintasunezko denboratan ezin dabelako ulertu, bizitzazko arlo guztietan eurei gertatzen jakiezanakaz.

(1) “Euskaldunaren osagarritasuna” = *complementariedad de los vascos*.

Orregaitik eta goian esan dodan lez, txori begiraldi batez aurkeztuko dautsuet, Euskalerrriaren edozein erriko antzerkian zer gertatzen zan, karlistaren guda bidetik.

Bai ta, karlista guda ostean liberal faziztarekin, eta geroago Frankoren faziztak garaipendu ziranean, Euskalerrriko gizartea zelan geratu zan euren oinpean iñorako urten bide barik morroilpe.

Begitu daiguzan ba, karlistaren idaz lanean azalkatu dodazan borrokarekin, mendi baten albo bietatik zelan doiezan millaka liberalaren lantzadun zaldunak eta oiñezko gudariak

euren izkillu ta kañoiezko tresneriekin, mendi orren aurrean egon zan erritxoan karlistak arrapatzeko.

Eta karlistek iges egin ebelako edo an ez ziralako aurkitzen, erriko agintari, apaiza ta maisua erritarraz plazaratu, eta iltzeko keiñada edo meatxuen galdeketak ez ba ebezan eurak jakin gura ebentik ezer lortzen, erritarren arteko amar edo bostetik,


gizon edo emakume bat artuta tiroz ilten ebazan danon aurrean.

Eta zelan gizon edo emakume baten batetik bildur bidez, zeozer jakiten ebanean eta eurentzat garrantzizko gauza izaten zanean, erritar geienari abere ta diru guztiak kenduta, erriak erre egiten ebazala, erritarrak txirotasun aundienean itxita.

Bai mendien basa oiana be erre, liberalak basartetatik aldatzen doiezala, karlisten susmor aurkitzen ziranean.

Karlistaren idaz lanean aipatzen dot, zelan Karl Ferdinand Henningsenek liberalaren aldeko Inglesak, denbora onetan esaten ebala, **“In Isabelen guda lozteak Nafarroaren errietatik ibilterakoan, argi ikusten zirala euren zarraskiko asperkeriak”**.

Gure Euskalerrriko errietan, orduko gizaseme emakumearen artean: *“bildur, ogibide, jende mea, edo ta nortasunaren eritzizko izaeran ainbat naste egon zalako”*, sinismeneko eritziaren arloetan naste aundiak egon ziran liberal edo karlisten alde bietan, eta



geienak abertzaleak izaten ba ziran be, salaketaren bildur aundiak egon ziran, liberalaren zigorrez gain, Zumalakarregik berak be ainbat eriopeko zigorrak aginduten ebazalako, euren aurkako zelatan ibiltzen ziranai.

Eta orainarteko guda guztien ostetan ?.

Gaur bizi garan geienak dakigu 1.936, 1.939ko urte artean, Frankok, berezko lege guztien gaiñetik egin eban basakerizko guda ostein, zelan geratu giñan morroilpe ezer ezin eginik.

Eta zeozer egiterakoan, zelan apurtzen genduzan buruak, gogorkerizko guda indar orren aurka.

Guda orreitan alde bietako gazteen ilketaz gain eta negargarrizko ingurubegi ori ikusita, “*norkerisko asmakuntzalarien biotzetan ez dabe sendituko damu andi edo ta Jainkoaren bildurrik ?*”.

Nik uste dok, politika ta erlijioaren jakintzazko goiko maillatik asita “*norkeri edo sasi jainkotasunaren lapurrezko eritzian bizi gure dabela*” eta orregaitik ez gara arritu bear, gugaitik esaten dabenean: “**Ardi antzekoak dira**”<sup>(1)</sup>.

Pozik baiña beste alde batetik, “*norkerian arautatuko legeak, Jainkoaren legeakaz topo egin dabelako*”, eta aurkako borroka nagusi orrekaz aurrera egin ezinik, “*arrazoizko alkar izketaren aldira agertu gara, gure bizitzak Jainkoak gai oneri ezarri Eutsozan Berezko Legeetan kokatzeko*”.

Lan aztuna aurrera begira daukaguna.

Itxarokorra baiña, Jainkoak bizitz oneitara eragille lez danori bialduta, eta zor eskubidearen ardurak ordezkatzeko aukera garbiak daukagun lez eukinda: “*Gure bizitzaren amaieran, Jainkoaren aurrean benetako gizon emakume lez aurkeztu gindezan*”, munduko gizaren “*baitak*” poztasun aundienetan kokatuz gain, gai mundu onen jaurkintza, beste zentzu oneko argitasun baten sartuko geunke, bearrezkoa dan, arrazoiaren ordezeko ardura bidetik.

## Zer esan Euskaldun gazteari ?.

Ikusi dogun edesti onegaz, gazteari lenengo esan:

a) *Gure ariñauko aita ama, apaiz lekaiide lekaiimeak, ta agintaritzazko ordezkariak, naikoa egin ebela, guri Euskalerra eder au, berak gaur daukan demokraziaren askatasunezko sinismen aundian aurkeztuteagaz.*



(1) *Ardi antzekoak dira* = “*Son como ovejas*”.



*b) Ekanduaren gora bera Jainkoaren Lege lez, denbora edo aldi guztiak bardiñak izan da, eta Lege orren ordezkari bakarrak eskatzen dauskuelako danon Baitari. Beren betiko legea, zuen bizitzazko belaun aldian jatorriz agertuta, zuen ardurazko txanda dala, berezko lege berezi orreik, oraingo eragille lez ordezkatzeara.*

*d) Izkillu ta lerkain barik, norkerizko gizon maltzuraren atomozko guda tresnak, Jainkoaren Legeakaz topo egin da beartuta, gaurko edo betiko norkeriaren asmo bidetik urten egin bear dogulako, eta begirune aundiz Berezko Legeak berrezkuratuta, Gai-mundu onek oiñarrituta daukazan Legeakaz, eragille on lez, gizaren eskubideak zuzendu.*

## Zer egin ?.

*a) Gure Euskalerra osoan leen, Euskereak emoten daukun nortasunaren sinismena osatu ta indartu.*

*Eta Arana ta Goiri tar Sabinok eskatzen eban antzera, jakintzaren arloak sakon ikasita, bizitzarako bear doguzan arlo guztietako lantegi ta antolatutako elkarteetan sartuta, gizarteko toki bat bera esanda be, ez daitela euskeratu barik geratu, erriaren osasuna sendatzeko.*

*b) Gure arbasoen eragipenetik, bizitz oneri ainbeste milla urtetan Jainkoak oiñarritutako Legeari begira, al eben adierazpen ederrenariko bat emonda: "Gure Lege*

*Zaar eta gizazko eskubidearen alde, gaur gure Baitan daukagun askatasunaren demokrazizko egarrian, jakintzazko egibideak artu, Jainkoa eta gure Aiton Amonakaz daukaguzan zor aundiak ordezkatzeko, bide bakar eta egitsuena dalako.*

*d) Iñoz baiño sinismen aundiagorekin, mundu zabalean eta Europan batez be argitu ta erakutsi, gure ardurazko eragilletasuna zuzen ta garbientarikoa dala, konturatu daitezzen, alango IZAR bat ezin dala alboratu, Europa ta Mundua gaur, alango erri kudeatzaile on egarri dalako.*

*e) Eta gaur alderdikedetuta aurkezten bagara be, eta garai onen arrazoizko nasteagaitik, sasi edo ezjakintzak bideratzen gaituen gorroto, bekaizkeri, burukoi-keri eta norkerizko arrokeriak baztertuta, "Nortasunezko zentzun aundiz beti, gure Euskal Iparrezko Elburua artu bear dogu", goian esan doguzan guztiak ordezkatu gura badoguz.*

*Euskaldunak Ipar lez, kontuan euki bear dogu, Espainol kolonigille eritzizko menperatzaileak, Toledoko kaizar irudian daukien lapurkerizko guda indarragaz eta munduko gizaren eskubide guztien gaiñetik, euren norkeria ezarri gure dabela gure Euskalerrrian, eta len bait len, orko estualditik urten bearra daukagu, Jaungoikoa ta Munduko gizari eskeintzea gura ba doguz, Euskerea bidez, Askatasunezko-Demokrazian lortu genduzan zentzunezko jakintz aundiak.*

Euskalerrria oso zaarra da, bai gaztea be, eta nik badakit, Euskalerrriaren oraingo seme-alabak gai dirala, euren ordezko ardura orreik alai ta sinismen aundiagaz beteko dabezala, eta benetan diñotsuet, zuen belaun aldiaren unetxo dala Euskalerrriaren Askatasunezko agertunea.

*Ikusi dogun lez, Euskal izaera osagarritasunezkoa dala, bere Askatasunezko Jendekuntz Demokratikoak, ez dautsolako beste biderik aurkezten, eta gitziago*







*maltzurrezko norneriakin ibiltzen, EUSKERA, euskaldunai emoten dauskun Izatezko Nortasuna, gure arbasoen oituratutako lan bikaiñaren bidez jaungoikuaren legeari begira zentzunezko eta zorrotasunezko egi aundiz eginda dagoelako.*

Euskal gizarte guztiari esan: "Aitzaki ta maltzurrezko alderdikeri barik, edo ta naita alderdiekaz jokatu bear, EUSKALERRIA edo EUSKADIren ELBURUAGAZ jokatu bear dogula, JAINKOA eta ABERRIARI zor dautsezelako gure izatasunezko NORTASUNAK".

*Eta kontu andian euki, Euskadi ta Nafarroagaitik berba egiten dogunean, Euskalerriarengandik berba egiten dogula, biak euskaldunak izanez gain, Euskalerraren biotzezko ardatz-gailluak diralako.*

**"EUSKALERRI edo EUSKADI, IZAERAREN NOTASUNEZKO GORPUTZ BAT DA, ORAIN ASIKO OTE GARA BA, DAUKAGUN GORPUTZ EDER AU ZATITUTEN?"**

**ARGI IKUSI BEAR DITUGUZ, EUSKALERRIKO ETSALAREN**

**"TREBETASUNEZKOERASOAK"**

**ARANA ETA GOIRITAR SABINO KONTURATU ZAN ETA ORREGAITIK ALDARRIKATU EBAN:**

**"EUSKALERRIA edo EUSKADI"**

**"EUSKALDUNEN ABERRIA DALA"**

**Atutxatar Paul  
Zornotzan 2.011n Urrillaren 21ean.**



## Bidaurretan

-1-

Bidaurretan klaratar  
konbentu ederrean,  
argitasuna dago  
dizdiz dizdizean.  
Emen ez ta illunik  
ate ta barruan,  
dana ikusten dala  
argi ta garbian,  
Zeruko Eguzki Andia  
dagolako bertan.

-3-

Monumentu ederrak  
daduzka Oñatik,  
baña ez Bidaurretak  
daukan antzekorik.  
Jaunak egiten ditu  
laguntza bagarik,  
sorkari eder bikañak  
gizakiz jantzirik,  
zeruko aingeruekin  
ia bardindurik.

-5-

Gaurko mundua da  
egarri utsean,  
danetan gozatuta  
asetu eziñean.  
Iturri bat ba dogu  
Sagrario ondoan,  
asetuko leukena  
edonor beingoan,  
Jainkoaren grazia  
edanada otoitzean.

-2-

Lorategi eder bat  
dogu Bidaurretan,  
gorri, txuri, orlegi...  
milleka margotan,  
Mota askotako lorak  
ditugu munduan,  
baña bizi diranak  
gorputz ta animan,  
bakar-bakarrik dagoz,  
klaratar etxean.

-4-

Ba daukat nik ontzi bat  
usai gozoduna,  
Bidaurretara urbilduz  
usmatzen dodana.  
Ezta ustel usai  
munduak daukana,  
zerutarra da oso  
gozo gozoena,  
Jesussek gurutzetik  
zabaltzen dauana.

-6-

Egunak joan eta  
egunak etorri,  
gaurkoa agertu jaku,  
erabat pozgarri.  
Artu nire partetik,  
eskerka ugari,  
otoitzakin batera,  
Mezan bereziki,  
gero zeruan danok  
gaitezen ikusi.

Munetxek. 10.07.27

olerkia

# Euskaldun barrientzat

## Zazpi utsak



## Sudoku

9					8			4
	4		2					1
5				1	9	8		7
		2		9	4			7
7	9			2				5 8
	6		3	8		1		
3		8	9	7				2
	5				3		9	
6			1					3

3	8	5	2	4	1	6	7	6
6	7	9	1	4	2	5	8	3
1	9	7	3	6	8	4	5	2
2	5	4	8	9	3	7	1	6
3	1	8	9	7	5	6	4	2
4	6	5	3	8	7	1	2	9
7	9	3	6	2	1	4	5	8
1	8	2	5	9	6	4	3	7
5	2	6	4	1	9	8	3	7
8	4	7	2	3	6	9	1	5
9	3	1	7	5	8	2	6	4

Ikasten



### ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar .....  
 ..... kalean (auzoan)..... zenbakian  
 ..... errian, ..... errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko ..... diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,  
 an daukadan     zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN “ZER”. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

Maite ditut  
maite  
geure bazterrak  
lanbroak  
izkututzen dizkidanean  
zer izkututzen duen  
ez didanean ikusten uzten  
orduan asten bainaiz  
izkutukoa...  
nere barruan bizten diren  
bazter miresgarriak  
ikusten.

Mikel Laboa

**Belagua (Nafarroa)**

